En los últimos años los contenidos que han experimentado un incremento notable en la Red son precisamente los suministrados por los propios usuarios, que se proporcionan gracias a diferentes servicios de comunicación, entre ellos, el correo electrónico, la transferencia de ficheros (P2P o no), la mensajería instantánea, el *chat*, y los mensajes cortos y multimedia.

El correo electrónico, tal y como se espera, es el servicio de mayor éxito y difusión en la Sociedad de la Información, ya que el 81% de los usuarios utilizaba en 2005 el correo electrónico en la C.A. de Euskadi. El 34% de los internautas vascos participaba en *chats* y hacían transferencia de ficheros vía FTP²⁶ un 30%. Estas cifras están ligeramente por encima de las medias del Estado, que van desde el 75% de utilizadores de correo electrónico al 31% de los que hacen FTP. Las aplicaciones de mensajería instantánea (*instant messenger*) y el *chat*, son utilizadas respectivamente, por un 22 y un 34% de los usuarios de la red desde el hogar en el conjunto del Estado. Si tenemos en cuenta que España se sitúa a la cabeza con relación a los países más desarrollados del mundo²⁷ en esta última cuestión, colegiremos el avanzado grado de desarrollo que alcanzan estos contenidos en nuestro territorio.

Desde la óptica de los idiomas empleados en el acceso a los contenidos (gráfico 11), las encuestas ponen de manifiesto que el castellano (99,2%) es el idioma empleado o preferido por la mayoría de los internautas, situándose el euskera (20%) y el inglés (19,9%) en un segundo nivel.

2.4.2. Komunikazioak

Azken urteetan Sarean hazkunde nabarmena izan duten edukiak erabiltzaileek beraiek elkarren artean izandakoak dira, hain zuzen. Komunikazio-zerbitzu desberdinei esker izan dituzte: posta elektronikoa, fitxategien transferentzia (P2P edo ez), berehalako mezularitza, *chata* eta mezu laburrak eta multimedia.

Posta elektronikoa da, espero den bezala, Informazioaren Gizartean arrakastarik eta hedapenik handiena duen zerbitzua, izan ere erabiltzaileen %81ak zerabilkien posta elektronikoa EAEn 2005ean. Euskal internauten %34k *chatetan* parte hartzen zuen eta %30ek FTP bidez fitxeroen transferentziak egin²⁶. Zifra horiek Estatuko bastez bestekoen gainetik daude apur bat, posta elektronikoa %75ek eta FTP %31k erabiltzen baitute Estatuan. Berehalako mezularitza (*instant messenger*) eta *chata*, hurrenez hurren, sarearen erabiltzaileen %22k eta %34k erabiltzen dituzte etxetik Estatu osoan. Kontuan baldin badugu Espainia gai honetan buru dela munduko herrialde garatueneren zerrendan²⁷, gure lurraldean eduki horiek duten garapen-maila altua dela ondorioztatzen da.

Edukietara sartzeko erabiltzen den hizkuntzaren ikuspegitik (11. grafikoa), inkestek adierazten dute gaztelania (%99,2) internautek nahien edo gehien erabiltzen duten hizkuntza, bigarren mailan daude euskara (%20) eta ingelesa (%19,9).

Idiomas utilizados en la C.A. de Euskadi en el acceso a contenidos

11

EAEn edukietara sartzeko erabiltzen diren hizkuntzak

2005



Iturria: Eustat, Informazioaren Gizarteari buruzko inkesta-IGI Familiak. Fuente: Eustat, Encuesta sobre la Sociedad de la Información-ESI Familias.

2.4.3. Comercio electrónico

Otro de los contenidos relevantes de Internet es el comercio electrónico. Desde el lado de los consumidores o familias, el número de usuarios que compró algún producto por esta vía

²⁶ No existen datos referentes a la comunicación entre iguales o P2P, donde cada usuario pone a disposición de los demás sus «contenidos», por lo que actúa como «servidor».

²⁷ OECD, 2005.

2.4.3. Merkataritza elektronikoa

Interneten garrantzia duen beste edukietako bat merkataritza elektronikoa da. Kontsumitzaileei edo familiei dagokienez, Internet bidez produkturen bat erosi zuen erabiltzaile kopurua

²⁶ Ez dago P2P edo berdinen arteko komunikazioari buruzko daturik. Erabiltzaile bakoitzak besteen esku jartzen ditu bere «edukiak» eta «zerbitzari» lanak egiten ditu.

²⁷ ELGA, 2005.

fue de 158.000, como media, en 2005, lo que supone que aproximadamente un 23 % de los internautas vascos realizan compras *on line*, lo que representa un 8% del total de la población. Esta cifra supone duplicar la estimada dos años atrás. Este elevado crecimiento puede explicarse no sólo por la incorporación de nuevos compradores, si no más bien por la tendencia que apunta a que empieza a consolidarse el internauta comprador dentro de la Red, fruto de la comodidad y del paulatino conocimiento y experiencia que ha ido adquiriendo éste en Internet y que deriva en la compra cada vez mayor de productos *on line*. Además, el usuario medio de la C.A. de Euskadi, admite no desconfiar de la seguridad (un 78%) del sistema de pago, para lo que utiliza preferentemente la tarjeta de crédito (el 70% de los compradores), la cuenta corriente (18%) o el reembolso (17%).

Los productos más adquiridos tienen que ver con viajes o alojamientos (el 50% de los internautas), entradas de espectáculos (20%), libros y revistas (17%) y, casi por igual, ropa y material deportivo, música, electrónica y productos para el hogar (11%). El comprador tipo es varón, con estudios superiores, reside en Bizkaia, está ocupado y es de mediana edad.

Las empresas también emplean el comercio electrónico (denominado B2B) cada vez en mayor medida, aunque están a cierta distancia del uso que de ello hacen los particulares. Los datos que muestra el cuadro 2 ponen de relieve el incipiente estado de esta cuestión entre las empresas de la C.A. de Euskadi, donde tan sólo el 7,6% (unas 13.000) de ellas hacen uso de la red para sus negocios²⁸, 3 puntos porcentuales por debajo de la media española, que además ocupa el último lugar dentro de la Unión Europea en esta materia. Además, en ambos casos, estas operaciones se centran básicamente en las compras, ya que las empresas que realizan ventas por Internet apenas si suponen el 2% del total²⁹.

Entre las razones que se esgrimen como obstáculo al desarrollo del comercio electrónico están preferentemente las relativas a que «los productos no son los adecuados» (argumentado por el 50% de los establecimientos de la C.A. de Euskadi) y a la «falta de preparación de los clientes» (un 38,5%), quedando en un segundo plano otras cuestiones como son la seguridad de los pagos, los plazos de entrega o la falta de garantías legales (30%). Parece que las empresas vascas no valoran todavía las importantes ventajas que el uso de las TIC puede realizar en su negocio, ya que la mayor parte de los estudios realizados en este campo reflejan la relación positiva y significativa de la inversión en TIC y el uso de las mismas con respecto a las mejoras de la productividad³⁰.

²⁸ Pese a todo, en 2004 las ventas de las empresas vascas por medios electrónicos ascendieron a 4.312 millones de € y las compras a 2.013, con unas tasas de crecimiento nominal anual del 17% y 12%, respectivamente (EUSTAT, ESIE).

²⁹ Es necesario señalar que la mayor parte de estas operaciones comerciales (el 58% en el caso de la C.A. de Euskadi y el 88% en el de España) se hacen mediante EDI (Intercambio Electrónico de Datos), es decir, se trata de transmitir electrónicamente documentos contables entre aplicaciones informáticas en un formato normalizado. Desde hace varios años asistimos a una verdadera revolución en la transmisión electrónica de información, de forma que cada vez más las herramientas que utilizará el profesional de la administración de empresas y contabilidad estarán ligadas a las telecomunicaciones.

³⁰ Black y Lynch (2001) y Dans (2001).

158.000 izan zen, batez beste, 2005ean; hau da, euskal internauten %23 inguruk on line egiten ditu erosketak, biztanleriaren %8k, alegia. Zifra hori bikoiztu egin da duela bi urtekoarekin alderatuz gero. Hazkunde handi hori erosle berriak sartu direlako ez ezik, beste jarrera bategatik izan da, batez ere: Sarean erosten duen internauta finkatzen hasi delako. Erosotasunagatik gertatu da hori, baina baita pixkanaka Internet ezagutzen joan delako eta esperientzia hartu duelako ere, horren ondorioz, gero eta produktu gehiago erosten dira *on line*. Gainera EAEko batez besteko erabiltzaileak dio ordaintzen sistemaz fio dela (%78) eta horretarako batez ere kreditu txartela erabiltzen du (erosleen %70ak), kontu korrontea (%18) edo errenboltoa (%17).

Gehien erosten diren produktuak bidaiekin edo ostatu harztearekin lotuta daude (internauten %50), ikuskizunetarako sarrerak (%20), liburuak eta aldizkariak (%17) eta, ia neurri berdinean, arropa eta kirolerako materiala, musika, elektronikak eta etxerako produktuak (%11). Erosle tipoa gizonezkoa da, goi-mailako ikasketaduna, Bizkaian bizi da, okupatuta dago eta adin ertainekoa da.

Enpresek ere erabiltzen dute merkataritza elektronikoa (B2B deiturikoa), gero eta gehiago erabili ere, nahiz eta partikularrek baino dezente gutxiago erabili. 2. koadroko datuek adierazten dute egoera hori EAEko enpresetan hasi besterik ez dela egin enpresen %7,6k bakarrik (13.000 inguruk) erabiltzen baitu sarea negozioetarako²⁸, Espainiako batez bestekotik 3 puntu portzentual beherago dago, nahiz eta Espainia gai honetan azken postuan egon Europar Batasunean. Gainera, kasu bietan, batez ere erosketak egiteko erabiltzen dute, Internetez salmentak egiten dituzten enpresak denen %2ra ez baitira ia iristen²⁹.

Merkataritza elektronikoa garatzeko oztopo diren arrazoen artean honakoak aipatzen dira batez ere, «produktuak ez dira egokiak» (EAEko establezimenduen %50ak esana) eta «bezeroak ez daude prestatuta» (%38,5), bigarren mailan dauden arrazoiak dira ordaintzen segurtasuna, entregatzeko epeak edo berme legalik eza (%30). Dirudienek euskal enpresek ez dituzte baloratzen IKTak erabiltzeak negozioari dakartzan abantaila garrantzitsuak, izan ere alor honetan egindako azterketa gehienek harreman positiboa eta esanguratsua islatzen dute IKTetan egindako inbertsioaren eta horiek erabiltzearen eta produkzioan hobekuntzak izatearen artean³⁰.

²⁸ Dena dela, 2004an euskal enpresek bitarteko elektronikoen bidez egindako salmentak 4.312 milioi €koak izan ziren eta erosketak 2.013koak, urteko hazkunde-nominal tasa %17 eta %12ko izan zen, hurrenez hurren (EUSTAT, ESIE).

²⁹ Esan beharra dago merkataritza-eragiketa horiek gehienak (%58 EAEn eta %88 Espainian) EDI bidez egiten direla, hau da, elektronikoki igortzen dira dokumentu korableak aplikazio informatikoen artean formatu normalizatuan. Duela urte batzuetatik egiazko iraultza dugu informazioa elektronikoki igortzean, beraz, enpresa-administrazioko eta kontabilitateko profesionalak erabiliko dituen tresnak gero eta lotuago egongo dira telekomunikazioei.

³⁰ Black eta Lynch (2001) eta Dans (2001).

	Merkataritza elektronikoa Comercio electrónico	Erosketak Interneten Compras Internet		Salmentak Interneten Ventas Internet	
		Establezimenduak Establecimientos (%)	% Erosketen batez bestekoa establezimenduko (1) % Medio de compras por establecimiento	Establezimenduak Establecimientos (%)	% Salmenten batez bestekoa establezimenduko (1) % Medio de ventas por establecimiento
EB-15 / UE-15	42,5	33,1		12,2	
Espainia / España	10,6	9,9	28,5	2,0	22,6
Euskal AE / C.A. de Euskadi	7,6	6,8	15,2	1,7	22,0
Araba / Álava	5,9	5,4	15,2	1,2	30,1
Bizkaia	7,3	6,6	13,0	1,7	18,5
Gipuzkoa	8,7	7,7	17,8	1,9	24,4

(1) Erosketa guztiak kontuan hartuta eta merkataritza elektronikoa duten establezimenduetan, batez besteko % salerosketa elektronikoa egiten duten salerosketa guztia oinarri hartuta.

Sobre el total de compras y, en los establecimientos que realizan comercio electrónico, % medio de compras-ventas electrónicas sobre compras-ventas totales.

Iturria: EUSTAT, Informazioaren Gizartearen Inkesta-IGI Enpresak. INE, Encuesta de uso de TIC eta Comercio Electrónico (CE) en las empresas 2004-2005. EUROSTAT.

Fuente: EUSTAT, Encuesta sobre la Sociedad de la Información-ESI Empresas. INE, Encuesta de uso de TIC y Comercio Electrónico (CE) en las empresas 2004-2005. EUROSTAT.

Por territorios, son las empresas guipuzcoanas (industriales) las que más comercio electrónico realizan, mientras que las alavesas (servicios) son las que más venden en promedio. Por tamaño de empresas, son las de más de 10 trabajadores las que acaparan la mayor parte de este tipo de comercio, con el 75% de las compras y un 88% de las ventas.

Lurraldeka Gipuzkoako enpresak dira (industrialak) merkataritza elektronikoa gehien egiten dutenak, eta batez beste gehien saltzen dutenak, berriz, Arabakoak (zerbitzuak). Enpresen neurriari dagokionez, 10 langile baino gehiagokoek dute mota honetako merkataritza gehien, erosketen %75 eta salmenten %88 egiten baitute.

2.4.4. Servicios en Red

Otro de los contenidos esenciales de la Sociedad de la Información es el conjunto de servicios (en el más puro sentido de sector terciario) que se proporcionan de una forma virtual. En este grupo se encuentran los servicios que tienen o no su correspondencia con el mundo físico, pero que en cualquier caso pueden ser realizados de una manera total o parcial a través de la Red. El caso de la banca on line es uno de los ejemplos más representativos y evolucionados hasta la fecha. En la C.A. de Euskadi, aproximadamente el 40% de los internautas afirman utilizar alguno de los servicios de la banca on line, tanto para consultas como para transacciones. Según los datos disponibles, son las entidades bancarias locales las que más operan en la Red (Kutxa, BBK, CL-EK, por este orden), seguidas a cierta distancia por el BBVA y Caja Vital. Otro de los exponentes es el empleo de la Red para la enseñanza reglada, ya que en la actualidad hay un 12% de internautas que estudian a partir de ella. A medida que la Sociedad de la Información vaya evolucionando, se dispondrá de un número cada vez mayor de servicios a través de la Red, que comprenderán desde los relacionados con la Administración, hasta los vinculados con la sanidad y la educación universitaria, entre otros muchos.

2.4.4. Sareko zerbitzuak

Informazioaren Gizarteko funtsezko beste edukietako bat (hizkuntza sektoreko zentzu hertsian) modu birtualean eskaintzen den zerbitzu kopurua da. Talde honetan daude mundu fisikoarekin korrespondentzia duten eta ez duten zerbitzuak, baina, dena dela, osorik edo zati batean Sarearen bidez egin daitezkeenak. On line bankaren kasua da orain arteko adibiderik esanguratsuenetakoa eta eboluzionatuenetakoa. EAEn, internauten %40k dio on line bankako zerbitzuren bat erabiltzen duela kontsultatzeko eta transakzioak egiteko. Eskura ditugun datuen arabera, tokiko banketxeak dira Sarean gehien operatzen dutenak (Kutxa, BBK, CL-EK, ordena honetan), distantzia batera daude BBVA eta Caja Vital Kutxa. Beste adibideetako bat da Sarea erabiltzea irakaskuntza arauturako, izan ere gaur egun internauten %12k hortik ikasten baitute. Informazioaren Gizarteak aurrera egin ahala, gero eta zerbitzu gehiago izango da Sarearen bidez, hasi Administrazioaren lotura dutenetatik eta osasunarekin eta unibertsitate-ikasketekin loturikoetarako artekoak, beste askoren artean.

2.5. Entorno

Se pretende incluir en este epígrafe los elementos básicos y los factores corrientes que tienen una importancia decisiva, si

2.5. Ingurua

Epígrafe honetan sartu nahi ditugu oinarritzko elementuak eta ohiko faktoreak berebiziko garrantzia dutenak Informazioa-

no vital, para que la Sociedad de la Información, tal y como la hemos venido desgranando hasta aquí, se desarrolle convenientemente en el futuro inmediato. La multitud de elementos fundamentales que componen dicha SI no son ni mucho menos ajenos al entorno económico, político y social en el que se insertan y, por qué no, al que sirven.

De entre toda esa multitud de factores que ejercen su influencia en la SI y que, a su vez, se ven alterados por ella, nosotros vamos a prestar aquí una breve atención a unos pocos, como son la economía, la formación y cualificación del empleo, la legislación o la promoción. Dado que la mayor parte de estos aspectos relativos a la C.A. de Euskadi son materia de otros capítulos de este libro, nos ceñiremos a presentar a modo de síntesis un gráfico que engloba una serie de indicadores que tienen que ver con la Sociedad del Conocimiento y con la Investigación, el Desarrollo y las Tecnologías de la Información (gráfico 12³¹).

A la vista simple de esta información, es fácil adelantar que la C.A. de Euskadi parte de una situación ventajosa en cuanto al entorno como elemento impulsor de la Sociedad de la Información. Así, la situación económica de la C.A. de Euskadi en los últimos tiempos pasa por un estado de buena salud, ya que el PIB ha crecido por encima de la media española y ha duplicado al de la UE, lo que le ha permitido reducir bastante su tasa de desempleo y aumentar su renta *per cápita*. Ello predice una gran influencia en el desarrollo de la Sociedad de la Información, ya que los dos elementos que constituyen el lado de la oferta, las infraestructuras y los contenidos, dependen en gran medida de la disponibilidad de capital para alimentar las fuertes inversiones que se exigen en la actualidad. Su tejido productivo, además, aunque está más escorado hacia la industria, es altamente productivo, con reconocida presencia en la tecnología avanzada y con una clara vocación internacional y exportadora.

La extensa infraestructura de formación permite a la C.A. de Euskadi disponer del capital humano formado adecuadamente en las tecnologías de la información, lo que es un requisito imprescindible para la correcta evolución del futuro de la sociedad. En este sentido, presenta tasas de personal muy superiores a la media española y de las regiones europeas similares. Más aún, la C.A. de Euskadi cuenta con la red de infraestructuras de ciencia, tecnología e innovación más robusta del Estado. Todo ello conforma un sistema vasco de innovación, cuyo papel principal recae en las empresas, y que afrontó en 2004 un gasto en I+D cercano al 1,45% del PIB, y aunque por debajo de la media europea, está muy por encima de la media española (1,07%). Ello se traduce en que, en principio, la inversión pública en I+D en términos relativos está por debajo de la media estatal, cuestión ésta que se ve más que compensada por la inversión empresarial que está muy por encima de esa media.

El papel de las administraciones y principales instancias públicas a la hora de fomentar el desarrollo de la Sociedad de la Información está resultando esencial. En los últimos años,

³¹ Este gráfico 12 mide, en términos relativos, las desviaciones de las variables consideradas con respecto a la media del Estado español, por un lado, y con relación a cierto conjunto de regiones que tienen características similares en materia de I+D+I a la C.A. de Euskadi en la UE-25 (en España, Navarra, Cataluña, p.e.) por otro. Las cifras a la derecha del 100 indicarían, en general, una posición más favorable.

ren Gizartea, orain arte azaldu dugun bezala, etorkizun hurbilean behar bezala gara dadin. IG hori osatzen duten funtsezko elementu ugariak kontuan ditu inguru ekonomikoa, politikoa eta soziala, horietan sartuta baitago eta, zergatik ez, horiei zerbitzatzen baitie.


IGN eragina duten, eta, aldi berean IGk aldatzen dituen faktore anitzen artean guk gutxi batzuetan jarri dugu arreta, hala nola, ekonomian, prestakuntzan eta enplegu kualifikazioan, legiazioan edo sustapenean. EAeri buruzko alderdi horiek gehienak liburu honetako beste kapitulu batzuetan aztertzen direnez, laburpen gisa grafikoa bat aurkeztuko dugu zenbait adierazle barruan dituen Ezagutzaren eta Ikerketaren Gizartearekin, Garapena eta Informazio-Teknologiarekin (12. grafikoa³¹).

Informazio horri bakarrik begiratuz gero, erraz aurreratu daiteke EAEk abantailazko abiapuntua duela inguruaren Informazioaren Gizartearen sustatzaile izateari dagokionez. Azken denboran EAEk duen egoera ekonomikoa ona da, BPG Espainiako batez bestekoa baino gehiago hasi baita eta EBkoa bikoiztu baitu, horri esker, langabezia-tasa dezente murriztu da eta *per capita* errenta hazi ere bai. Horrek guztiak eragin handia aurreikusten du Informazioaren Gizartean, izan ere eskaintzaren aldean dauden bi elementuak (azpiegiturak eta edukiak) kapitala eskuragarri izatearen mende baitaude hein handi batean, gaur egun eskatzen diren inbertsio handiak egiteko. Bertako produkzio-ehuna, gainera, industriarantz okertuta dagoen arren oso produktiboa da, aitortutako presentzia duen teknologia aurreratua eta nazioarterako eta esportaziorako bokazio argia ere badu.

Prestakuntzarako azpiegitura zabala izateari esker, EAEk giza-kapitala du behar bezala trebatua informazioaren teknologietan, eta hori ezinbesteko baldintza da gizartearen etorkizunak eboluzio egokia izan dezan. Zentzu horretan langileriatasak Espainiako eta Europako antzeko eskualdeetako batez bestekoak baino askoz handiagoak dira. Are gehiago, EAEk zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-azpiegitura indartsuena du Estatuan. Horrek guztiak berrikuntzako euskal-sistema osatzen du eta zeregin nagusia enpresei dagokie. 2004an BPGren %1,45 inguruko gastuari egin zion aurre I+Gn, eta hori Europako batez bestekoaren azpitik dagoen arren, Espainiako batez bestekoa baino askoz handiagoa da (%1,07). Horrek esan nahi du, printzipioz, I+Gn egiten den inbertsio publikoa Estatuko batez bestekoaren azpitik dagoela, baina gai hori oso konpentsatuta dago inbertsio enpresarialagatik, batez besteko horren oso gaineratik baitago.

Informazioaren Gizarteko garapena sustatzeko administrazioek eta erakunde publiko nagusiek duten zeregina funtsezkoa da. Azken urteetan EAEko erakunde publikoek nolabait

³¹ 12. grafikoa honek neurtzen ditu, termino erlatiboetan, kontuan hartutako bariabileen desbiderazioak Estatu espainiarreko batez bestearekiko batetik eta, bestetik, antzeko ezaugarriak dituzten eskualde multzoekiko (Espainia, Nafarroa, Katalunia, adib.). Eskualde horiek 25-EBkoak dira eta EAEn antzeko ezaugarriak dituzte I+G+B kasuan. 100 zenbakiaren eskuinetara dauden zifrek, oro har, kokapen hobea adierazten dute.



Iturria: European Commission, RDTI Indicators, 2004. MERITek egina EUROSATEko datuak oinarri hartuta.
Fuente: European Commission, RDTI Indicators, 2004. Elaboración de MERIT a partir de datos de EUROSTAT.

las Instituciones Públicas de la C.A. de Euskadi han asumido en cierta manera una clara función de liderazgo sobre la sociedad (está en su papel) y nos consta que han trabajado, a su modo siempre discutible, en la línea de:

- Divulgar información estratégica sobre las condiciones de uso de las TIC (costes, ventajas, inconvenientes, etc.).
- Fomentar la educación con TIC y en las TIC a todos los niveles educativos.
- Fomentar la alfabetización informática de la población de la C.A. de Euskadi.
- Poner en marcha programas demostrativos para pymes.
- Utilizar el efecto demostración desarrollando, con eficiencia y utilidad, servicios públicos para ciudadanos y empresas a través de las redes de información. La oferta progresiva de servicios a través de Internet facilitará el que las gestiones burocráticas que la sociedad vasca (ciudadanía y empresariado) debe realizar se gestionen con más celeridad y, a la vez, se familiarice con el uso de las TIC.

ere buruzagitza funtzio argia hartu dute gizartearekiko (bere zereginean ari da) eta honako lerro hauetan egin duela lan dakigu, bere modu eztabaidagarrian beti:

- Informazio estrategikoa hedatu IKTen erabilera-baldintzei buruz (kostek, abantailak, desabantailak, etab.).
- IKT bidezko hezkuntza eta IKTeetan hezkuntza sustatu heziketa-maila guztietan.
- EAEko biztanleriaren alfabetizazio informatikoa sustatu.
- ETEentzako demostrazio-programak jarri abian.
- Demostrazio-efektua erabili eraginkortasunez garatuta hiritarrentzako eta enpresentzako zerbitzu-publikoak informazio-sareen bidez. Internet bidez gero eta zerbitzu-eskaintza handiagoa egoteak erraztu egingo du euskal gizarteak (hiritarrek eta enpresek) egin beharreko kudeaketa burokratikoak azkarrago kudeatzea eta, aldi berean, IKTak erabiltzen ohitzea.

En fin, desde los comienzos de la SPRI³², con el mítico programa IMI (fomento de la microelectrónica en la industria), pasando por el programa Konezta-Zaitez, se ha tratado de impulsar la utilización de las Tecnologías de la Información y las Telecomunicaciones por parte de las empresas, ciudadanos y Administración en su doble vertiente de usuarios y proveedores de servicios y contenidos. Esta misión está reflejada en la actualidad en la iniciativa del Gobierno Vasco, que ha promovido una serie de actuaciones en el marco de lo que se ha venido a denominar «Plan Euskadi en la Sociedad de la Información».

A modo de conclusión parcial de este apartado, queda patente las especiales y excelentes condiciones con las que cuenta en la actualidad el «entorno» socio-económico-productivo de la C.A. de Euskadi para continuar con el desarrollo, de manera apropiada, de la Sociedad de la Información y sus nuevos retos.

SPRI³² sartu zenetik IMI programa mitikoarekin (mikroelektro-nika sustatu industrian) eta Konekta-Zaitez programatik igaro, honakoa sustatzen saiatu da: enpresek, hiritarrek eta administrazioak (bi aldeetatik zerbitzuen eta edukien erabiltzaile eta hornitzaile aldetik) Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak erabiltzea. Gaur egun zeregin hori islatzen da Eusko Jaurlaritzaren ekimenen batean, «Euskadi informazio gizartean plana» delakoaren markoan zenbait jarduera sustatu dituenen.

Atal honen zati-ondorio gisa, argi gelditzen dira EAEko «inguru» sozio-ekonomiko-produktiboak baldintza berezi eta bikainak dituela Informazioaren Gizarteko garapenarekin eta horko erronka berriekin modu egokian jarraitzeko.

³² SPRI, S.A. actualmente gestiona varios programas para promover el uso de las Tecnologías de la Información entre las empresas y los ciudadanos de Euskadi. Éste es un breve resumen de estas iniciativas. **PROGRAMAS DESTINADOS A EMPRESAS:** KONEKTA ZAITEZ MICROEMPRESAS (Microempresas), HOBEDI DIGITALA (Pequeñas y Medianas Empresas), KZ LANKIDETZA (Asociaciones y Empresas Tractoras), Acceso a Internet y Movilidad con *Wi-Fi*. **PROGRAMAS DESTINADOS A CIUDADANOS:** INTERNET ACCESO FÁCIL (Adquisición de dispositivos sencillos de acceso a Internet), CENTROS DE FORMACIÓN Y ACCESO A INTERNET (Formación en Internet a colectivos especiales) e IT-TXARTELA (Sistema de acreditación de conocimientos básicos en Tecnologías de la Información).

³² SPRI, S.A.k gaur egun zenbait programa kudeatzen du Euskadiko enpresetan eta hiritarretan informazio-teknologiaren erabilera sustatzeko. Hona hemen ekimen horien laburpena. **ENPRENTZAKO PROGRAMAK:** KONEKTA ZAITEZ MIKROENPRESAK (Mikroenpresak), HOBEDI DIGITALA (Enpresa txiki eta ertainak), KZ LANKIDETZA (Elkarteak eta enpresa eragileak), Internetera sarbidea eta mugikortasuna *Wi-Fi* bidez. **HIRITARRENTZAKO PROGRAMAK:** INTERNET SARBIDE ERRAZA (Interneten sartzeko dispositibo xumeak erostea), PRESTAKUNTZA ZENTROAK ETA INTERNETERA SARBIDEA (Interneti buruzko prestakuntza talde bereziei) eta IT-TXARTELA (informazio-teknologietan oinarritzko ezagutza duela kreditatzen duen sistema).

3. CONCLUSIONES

Los constantes avances tecnológicos traen consigo aparejados importantes procesos de innovación. En el caso de la C.A. de Euskadi, como en casi todo el mundo, una de estas innovaciones ha llegado a nuestras vidas en forma de «Sociedad de la Información» y está protagonizada preferentemente por los jóvenes. La Sociedad de la Información es un fenómeno complejo, un nuevo orden social basado en el uso generalizado, intensivo y extensivo de las TIC, que posibilita que la producción y la mayoría de las actividades económicas y sociales funcionen en red. Se trata, por tanto, de un reto, un objetivo a alcanzar que requiere el esfuerzo de toda la sociedad para proveer de los recursos materiales (producción, infraestructuras,...) y humanos (capital humano cualificado, investigación y desarrollo, capacidad emprendedora,...) que faciliten su desarrollo. Sin embargo, creemos que este esfuerzo ha de realizarse de manera que los mecanismos de la SI no se constituyan en fuente de nuevas diferencias económicas y sociales (brecha digital), sino que favorezca la igualdad de oportunidades. El objetivo debiera ser el de una SI para tod@s. El cómo hacer llegar estas innovaciones a los sectores más tradicionales de la actividad productiva y a otros sectores de la población es un reto importante para una sociedad que presume de ser democrática, solidaria y justa.

Por lo demás, la posición relativa de la C.A. de Euskadi desde el punto de vista del proceso de transición hacia la SI es bastante aceptable en comparación con el resto de España, ya que se encuentra entre los primeros lugares en cualquiera de las variables que analicemos, pero apenas si roza la situación predominante en la Unión Europea y se encuentra por debajo de las regiones más avanzadas en ese ámbito. Esto es bastante elocuente en cuanto a los usos y contenidos de las TIC que afectan a las familias, ya que no hay grandes diferencias entre los resultados obtenidos para la C.A. de Euskadi y los que se observan para la Unión Europea. Vivimos en un mundo donde importar hábitos y pautas de consumo es relativamente sencillo.

Donde reside el punto más oscuro que se desprende del análisis que hemos propuesto es en la escasa dimensión que cobran ciertas tecnologías de información en las empresas vascas. La incorporación de las TIC en el ámbito empresarial se ha destacado como un elemento clave para mejorar la competitividad, impulsar el crecimiento económico, conseguir una mayor creación de empleo y lograr con todo ello un mayor nivel de desarrollo económico y social. En las empresas vascas el problema fundamental no es de equipamiento, sino de utilización. Están equipadas con Tecnologías de la Información y Comunicación (dependiendo del tamaño, cada una en su medida), si bien el análisis de los usos de estas tecnologías ha puesto de manifiesto, especialmente en el caso de las más pequeñas, que las TIC no se han incorporado aparentemente de manera suficiente a los procesos internos de organización y funcionamiento. Los datos de la utilización de PC's, ventas y compras y suministros, redes de comunicación –interconexión entre clientes y/o proveedores–, uso de Internet y Comercio electrónico reflejan el importante desfase con respecto a los países más desarrollados. Si aceptamos que para éstos la integración entre tecnología y negocio es un factor clave para la competitividad, estaremos de acuerdo que aún falta mucho por hacer. O cuando menos, los indicadores sitúan a las empresas de la C.A. de Euskadi a una cierta distancia de las europeas. En fin, la tecnología aplicada al ámbito empre-

3. ONDORIOAK

Etengabeko aurkikuntza teknologikoeekin batera etortzen dira berrikuntza-prozesu garrantzitsuak. EAEren kasuan, ia mundu osoan bezala, berrikuntza horietako bat «Informazioaren Gizarte» moduan etorri da eta gazteak dira, batez ere, protagonista. Informazioaren Gizartea fenomeno konplexua da, ordena sozial berria IKTen erabilera orokortu, intentsibo eta estentsiboan oinarritua; horri esker produkzioa eta jarduera ekonomiko eta sozial gehienak sarean funtzionatzen dute. Erronka bat da, beraz; lortu beharreko helburu bat, gizarte osoaren ahalegina eskatzen duena hori garatzeko behar diren bitartekoak (produkzioa, azpiegiturak...) eta giza bitartekoak (giza kapital kualifikatua, ikerketa eta garapena, ekiteko gaitasuna...) eskaini ditzan. Baina gure ustez ahalegin hori egin behar da IGko mekanismoak alde ekonomiko eta sozial berriak sortzeko izan ez daitezkeen (zulo digitala) baizik eta aukera-berdintasunaren alde egin dezaten. Helburua denontzako IG izan behar du. Berrikuntza horiek produkzio-jarduerako sektore tradizionalak eta biztanleriaren beste sektore batzuetan nola iritsarazi erronka garrantzitsua da demokratikoa, solidarioa eta bidezkoa dela harro aldarrikatzen duen gizarte batentzat.

Gainontzean, EAEk duen kokapen erlatiboa IGrako trantsizio-prozesuaren ikuspegitik, nahiko onargarria da Espainiako beste eskualdeekin alderatuz gero, izan ere aztertzen den edozein aldagaitan lehen postuetan baitago, baina doi-doi ukitzen du Europar Batasunean nagusi den egoera, eta eremu horretan aurreratuen dauden eskualdeen azpitik dago. Hori nahiko adierazgarria da familiei dagokien IKTen erabilerei eta edukiei dagokienean, ez baitago alde handirik EAEko emaitzen eta Europar Batasunekoaren artean. Bizi garen mundu honetan nahiko erraza da kontsumo-ohiturak eta –jarraibideak inportatzea.

Proposatu dugun azterketako punturik ilunena da euskal enpresetan informazioaren teknologia batzuek duten dimentsio urria. Enpresa-alorrean IKTak sartzea elementu giltzarria da lehiakortasuna hobetzeko, hazkunde ekonomikoa sustatzeko, enplegu-sormen handiagora lortzeko eta horrekin guztiarekin garapen ekonomiko eta sozial handiagora lortzeko. Euskal enpresen arazo nagusia ez da ekipamendua, erabiltzearena baizik. Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologiak badituzte (neurriaren arabera, bakoitzak bere mailan), baina teknologia horien erabilpena aztertuz gero, argi gelditzen da, batez ere txikien kasuan, IKTak ez direla dirudenez behar adina sartu antolakuntzako eta funtzionamenduko barne-prozesuetara. Desfase garrantzitsua dago herrialde garatuenekin alderatuz gero honakoetan: PCa erabiltzean, Salmenta eta Erosketa eta Hornikuntzetan, komunikazio-sareetan (bezeroen edota hornitzaileen arteko interkonexioak), Internet eta Merkataritza elektronikoa erabiltzean. Onartzen badugu herrialde garatuentzat teknologia eta negozioaren arteko integrazioa funtsezkoa dela lehiakortasunerako, ados egongo gara oraindik ere asko dugula egiteko. Guxtienez adierazleek EAEko enpresak Europakoengandik distantzia batera jartzen dituzte. Hau da, enpresa munduan ezarritako teknologiak ez du zentzurik enpresako prozesu guztietan integratutako tresna gisa hartzen ez bada. Beraz, enpresen politikak berritzaileagoa hartu beharko luketela diru-

sarial carece de sentido si no se considera como una herramienta integrada en todos los procesos de la empresa. Parece que, por tanto, las empresas deberían adoptar una política más innovadora, donde la tecnología juegue un papel estratégico en el diseño de los modelos de negocio, para convertirse en entidades competitivas, ágiles y eficaces. Pero también son necesarios, en este sentido, grandes esfuerzos de adaptación de los trabajadores y administraciones públicas para poder aprovechar al máximo las oportunidades que brinda la Nueva Economía.

Como reza el «Plan Euskadi en la Sociedad de la Información» es el momento de plantear un nuevo impulso que contribuya de forma decisiva a acelerar el proceso de adaptación de la sociedad vasca a esta nueva realidad. De ello depende el futuro.

di, teknologiek zeresan estrategikoa dutena negozio-ereduak diseinatzean, erakunde lehiakorak, azkarrak eta eraginkorrak izan daitezten. Baina, zentzu horretan, beharrezkoak dira egokitze-ahalegin handiak ere langileen eta administrazio publikoaren aldetik, Ekonomia Berriak eskaintzen dituen aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

«Euskadi Plana Informazioaren Gizartean» delakoan azaldu bezala, bultzada berria planteatzeko garaia da, euskal gizartea errealitate berri honetara egokitzeko prozesua azkartuko duena. Horren mende dago etorkizuna.

4. BIBLIOGRAFÍA

- Aramberri Miranda, J. (2003): «Infraestructuras para la Sociedad de la Información en el marco regional-local: tendencias y situación en la CAPV», en *Ekonomi Gerezian*, nº 9, Federación de Cajas de Ahorro Vasco Navarras. Bilbao.
- ASOCIACIÓN PARA LA INVESTIGACIÓN DE LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN (2005): Encuesta EGM a usuarios de Internet. Octubre-noviembre 2005. AIMC. Madrid. www.aimc.es
- Black, S. E. y Lynch, L. M. (2001): «How to compete: the impact of workplace practices and information technology on productivity». *Review of Economics and Statistics*, vol. 83, 3, pp. 434-445.
- Castells, M. (2000): *La era de la Información. Volumen 1. La Sociedad red*. Alianza Editorial, Madrid.
- COMISIÓN EUROPEA (2004): *Measuring Information Society*. Eurobarometer, Bruselas.
- COTEC (2000): Fundación COTEC para la innovación tecnológica. *La innovación en las Tecnologías de la Información y las Telecomunicaciones*. Madrid.
- Dans, E. (2001): «IT investment in small and medium enterprises: paradoxically productive?». *The Electronic Journal of Information Systems Evaluation*, vol. 4, March.
- EITO (2001): European Information Technology Observatory, 2001. Frankfurt
- (2005): European Information Technology Observatory, 2005. Frankfurt.
- EUROPEAN COMMISSION (2004): European Youth into the Digital Age, Eurobarómetro.
- EUSTAT (2004): Instituto Vasco de Estadística - Euskal Estatistika Erakundea, *La Sociedad de la Información y las empresas. Análisis de resultados*. www.eustat.es.
- (2003): Instituto Vasco de Estadística - Euskal Estatistika Erakundea, *La Sociedad de la Información y las familias. Análisis de resultados*. www.eustat.es.
- (2006): Instituto Vasco de Estadística - Euskal Estatistika Erakundea, Encuesta de la Sociedad de la Información (Familias), ESIF. www.eustat.es.
- (2006): Instituto Vasco de Estadística - Euskal Estatistika Erakundea, Encuesta de la Sociedad de la Información (Empresas), ESIE. www.eustat.es.
- FUNDACIÓN AUNA (2005): *E-España 2005: Informe anual sobre el desarrollo de la Sociedad de la Información en España*. Madrid.
- García Olea, V. (2003): «La Implantación de las TIC en las empresas vascas» en *Ekonomi Gerezian*, nº 9, Federación de Cajas de Ahorro Vasco Navarras. Bilbao.
- INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA (2006): Encuesta de uso de tecnologías de la información en los hogares. www.ine.es
- (2006): Encuesta de uso de TIC y comercio electrónico en las empresas. www.ine.es
- ITU (2005): INTERNATIONAL TELECOMMUNICATIONS UNION, *World Telecommunications Indicators Database 9th edition 2005*. Ginebra.
- Landefeld, J.S. y B. M. Fraumeni (2001): «Measuring the New Economy». *Survey of Current Business*, March, pp. 23-40.
- OECD (2000a): *A New Economy? The Changing Role of Innovation and Information Technology in growth*; Organisation for Economic Co-operation and Development, París.
- (2000b): *Measuring the ICT sector*. Organisation for Economic Co-operation and Development. October, París.
- (2001): OECD Information Technology Outlook 2000: *ICTs, E-commerce and the Information Economy*. París.

4. BIBLIOGRAFIA

- Aramberri Miranda, J. (2003): «Infraestructuras para la Sociedad de la Información en el marco regional-local: tendencias y situación en la CAPV», in *Ekonomi Gerezian*, 9. zk., Federación de Cajas de Ahorro Vasco Navarras. Bilbao.
- ASOCIACIÓN PARA LA INVESTIGACIÓN DE LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN (2005): Encuesta EGM a usuarios de Internet. Octubre-noviembre 2005. AIMC. Madrid. www.aimc.es
- Black, S. E. eta Lynch, L. M. (2001): «How to compete: the impact of workplace practices and information technology on productivity». *Review of Economics and Statistics*, 83 liburukia, 3, 434-445. orr.
- Castells, M. (2000): *La era de la Información. Volumen 1. La Sociedad red*. Alianza Editorial, Madrid.
- COMISIÓN EUROPEA (2004): *Measuring Information Society*. Eurobarometer, Brusela.
- COTEC (2000): Fundación COTEC para la innovación tecnológica. *La innovación en las Tecnologías de la Información y las Telecomunicaciones*. Madrid.
- Dans, E. (2001): «IT investment in small and medium enterprises: paradoxically productive?». *The Electronic Journal of Information Systems Evaluation*, vol. 4, March.
- EITO (2001): European Information Technology Observatory, 2001. Frankfurt
- (2005): European Information Technology Observatory, 2005. Frankfurt.
- EUROPEAN COMMISSION (2004): European Youth into the Digital Age, Eurobarómetro.
- EUSTAT (2004): Instituto Vasco de Estadística - Euskal Estatistika Erakundea, *Informazioaren gizartea eta enpresak. Emaizen azterketa*. www.eustat.es.
- (2003): Instituto Vasco de Estadística - Euskal Estatistika Erakundea, *Informazioaren gizartea eta familiak. Emaizen azterketa*. www.eustat.es.
- (2006): Instituto Vasco de Estadística - Euskal Estatistika Erakundea, Informazioaren Gizartearen inkesta (Familiak), IGIF. www.eustat.es.
- (2006): Instituto Vasco de Estadística - Euskal Estatistika Erakundea, Informazioaren Gizartearen inkesta (Enpresak), IGIE. www.eustat.es.
- AUNA FUNDAZIOA (2005): *E-España 2005: Informe anual sobre el desarrollo de la Sociedad de la Información en España*. Madrid.
- García Olea, V. (2003): «La Implantación de las TIC en las empresas vascas» in *Ekonomi Gerezian*, 9. zk., Federación de Cajas de Ahorro Vasco Navarras. Bilbao.
- ESTADISTIKA INSTITUTU NAZIONALA (2006): Encuesta de uso de tecnologías de la información en los hogares. www.ine.es
- (2006): Encuesta de uso de TIC y comercio electrónico en las empresas. www.ine.es
- ITU (2005): INTERNATIONAL TELECOMMUNICATIONS UNION, *World Telecommunications Indicators Database 9th edition 2005*. Geneva.
- Landefeld, J.S. eta B. M. Fraumeni (2001): «Measuring the New Economy». *Survey of Current Business*, March, 23-40. orr.
- ELGA (2000a): *A New Economy? The Changing Role of Innovation and Information Technology in growth*; Organisation for Economic Co-operation and Development, París.
- (2000b): *Measuring the ICT sector*. Organisation for Economic Co-operation and Development. October, París.
- (2001): OECD Information Technology Outlook 2000: *ICTs, E-commerce and the Information Economy*. París.

— (2005): OECD Information Technology Outlook 2004. Organisation for Economic Co-operation and Development, Paris.

— (2005): OECD Science, Technology and Industry Scoreboard 2005. Organisation for Economic Co-operation and Development, Paris.

OECD-WPIIS (1998): «Measuring the ICT sector. Information Society»; Working Party on Indicators for the Information Society, Organisation for Economic Co-operation and Development (DSTI/ICCP/IIS), Paris.

Prado, C. y González, N. (2003): «Análisis de la dimensión económica de la Nueva Economía en la Comunidad Autónoma del País Vasco» en *Ekonomi Gerezian*, nº 9, Federación de Cajas de Ahorro Vasco Navarras. Bilbao.

RED.ES (2006): *Octava oleada. Las TIC en los hogares españoles*. Red.es (Ministerio de Industria, Turismo y Comercio, Secretaría de Estado de Telecomunicaciones), Madrid. www.red.es

SEDISI (2000a): *Las Tecnologías de la Información en España 2000*. Asociación Española de Empresas de Tecnologías de la Información. Madrid.

— (2000b): *Métrica de la Sociedad de la Información. Datos 1999-2000*. Asociación Española de Empresas de Tecnologías de la Información, Marzo.

TELEFÓNICA (2001): *La Sociedad de la Información en España: Perspectiva 2001-2005*. Telefónica, Madrid.

— (2006): *Informe Sociedad de la Información España 2005*. Telefónica, Madrid. www.telefonica.es

— (2005): OECD Information Technology Outlook 2004. Organisation for Economic Co-operation and Development, Paris.

— (2005): OECD Science, Technology and Industry Scoreboard 2005. Organisation for Economic Co-operation and Development, Paris.

ELGA-WPIIS (1998): «Measuring the ICT sector. Information Society»; Working Party on Indicators for the Information Society, Organisation for Economic Co-operation and Development (DSTI/ICCP/IIS), Paris.

Prado, C. eta González, N. (2003): «Análisis de la dimensión económica de la Nueva Economía en la Comunidad Autónoma del País Vasco» In *Ekonomi Gerezian*, 9. zk., Federación de Cajas de Ahorro Vasco Navarras. Bilbao.

RED.ES (2006): *Octava oleada. Las TIC en los hogares españoles*. Red.es (Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioa, Telekomunikazioen Estatu-idazkaritza), Madril. www.red.es

SEDISI (2000a): *Las Tecnologías de la Información en España 2000*. Asociación Española de Empresas de Tecnologías de la Información. Madril.

— (2000b): *Métrica de la Sociedad de la Información. Datos 1999-2000*. Asociación Española de Empresas de Tecnologías de la Información, Martxoa.

TELEFÓNICA (2001): *La Sociedad de la Información en España: Perspectiva 2001-2005*. Telefónica, Madril.

— (2006): *Informe Sociedad de la Información España 2005*. Telefónica, Madril. www.telefonica.es